

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIA

HERRITARREKIKO ETA
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

LANDA GARAPENA, INGURUMENA
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

Indarrean sartu da EmanZipa laguntza berria, gazteei etxebizitzaren alokairua ordaintzen laguntzea xede duena

Lege berriaren indarraldiko lehendabiziko hamar egunetan 80 laguntza eskatu dira dagoeneko

Ostirala, 2019.eko urtarrilak 11

Lege berria urtarrilaren 10ean indarrean sartu ondorengo urteko lehen hamar egunetan, Eskubide Sozialetako Departamentuak etxebizitzarako eskubide subjektiboa gazteen modalitatean edo EmanZipa programari atxikita aitortzeko 80 eskaera jaso ditu. Aitorpen horrek hileko 250 eurorainoko laguntza jasotzea suposatzen du etxebizitzaren alokairua ordaintzeko.

Nafarroan etxebizitzarako eskubide subjektiboa aitortzen duen abenduaren 26ko 28/2018 Lege onartu berriak garrantzi handiko aurrerapausoa eman du etxebizitza duin eta egokirako sarbidea oinarrizko eskubidetzat jotzeko ahaleginean. Legeak alokatutako etxebizitza ordaintzen laguntzeko prestazio ekonomikoa arautu du, eta laguntza hori errentaren gaineko zerga negatibo gisa emango da, kuota diferentzialean dagokion kenkaria aplikatuz. Laguntzak zerga-kenkari gisa emateko modalitate honek ez du parekorik Europa osoan eta Nafarroako Foru Komunitateak zerga arloan dituen eskuduntzei esker gauzatu ahal izan da.

Prestazio honek bi modalitate ditu: bata, emantzipazioa lortzeko beharrari atxikitakoa eta gazteei zuzendutakoa, hiru urteko iraupena duena, EmanZipa deritzona; eta bestea, etxebizitzarako sarbidea finantzatzeko behar adinako baliabide ekonomikorik ez izatearekin loturikoa, denboran iraupen iraunkorra duena baldintzak betetzen jarraitzekotan, DaVid programa delakoa.

EmanZipa eta DaVid programek partekatutako baldintzak:

Programa hauetaz profitatzeko, nahitaezkoa da Nafarroan erroldatuta egotea eta 3.000 euroko gutxieneko diru-sarrerak eta 90.000 eurotik beherako ondasunak eta eskubideak izatea. Gainera, beste betekizun bat da etxebizitza baten jabea ez izatea (zenbait salbuespen ezarri dira; esaterako, etxebizitza desegokiena) eta azken bost urteotan etxebizitzarik eskualdatu ez izana (90.000 eurotik beherako diru-sarrerak eragin dituztenak salbu).

Kontuan hartzeko beste alderdi batzuk dira errentatzailearekiko ahaidetasunik ez izatea (odolkidetasunaren edo ezkontza-ahaidetasunaren bigarren mailaraino), etxebizitzaren gehienezko alokairua hileko 650 eurokoa izatea eta kenkaria urtero berritzea, ematea ala ukatzea baldintzak betetzen jarraitzearen arabera erabakiko baita.

EmanZiparen betekizun espezifikoak eta baldintzak:

EmanZipak etxebizitzarako sarbidea izateko eskubide subjektiboa errentamenduan gauzatzea proposatzen du, eta urte bakoitzeko abenduaren 31n 23 eta 30 urte bitarteko adina duten gazte emantzipatuei edo emantzipatu nahian dabilatzanei zuzenduta dago. EmanZipa era telematikoa baizik ezin da eskatu.

Ez da beharrezko aldeztatik izena emanda egotea NASUVINSAK kudeatzen duen etxebizitza babestuaren eskatzaileen erroldan. Laguntza honen gehienezko iraupena hiru urtekoa da, baina ez dute ondoz ondoko urteak izan behar.

Errentariak 20.000 euroko gehienezko diru-sarrerak izan behar ditu (zerga oinarriaren zati orokorra gehi salbuetsitako errentak), edo 30.000 eurokoak, bi kide edo gehiagoko familia-unitateen kasuan.

Etxebizitza parteka daiteke, eta kasu honetan, dagokion zatia emango litzaioke, errentamendu kontratuan dauden titularren kopuruaren arabera.

Laguntzaren zenbatekoa alokairuaren % 50a da; gehienez, 250 euro hilean.

DAVIDen betekizun espezifikoak eta baldintzak:

DaVid programak ere etxebizitzarako sarbidea izateko eskubide subjektiboa errentamenduan gauzatzea proposatzen du, eta errenta maila jakin baterainoko diru-sarrerak dituzten pertsoneri eta familiei zuzenduta dago.

DaVid laguntza telematikoki eskatzen ahal da, baita era presentzialean ere NASUVINSAREN bulegoetan (San Jorge Etorbidea 8, Iruñea), aldeztatik hitzordua eskatuz.

Nahitaezkoa da NASUVINSAK kudeatzen duen etxebizitza babestuaren eskatzaileen erroldan aldeztatik izena emanda egotea: gutxienez urte bateko antzinasunarekin urte bakoitzeko urtarrilaren 1ean. 2019rako, bi urteko gutxienezko antzinasuna eta adingabeak kargupean izatea eskatu da 2019/01/01 dataz egindako izen-emateetan.

Familiaren gehienezko diru-sarrera haztatuak: SARA (Errenta Egokiaren araberrako Errosteko Nahikotasuna, 2017an 8.120 euroko balioa zuena) halako 1,7. [Ikus taula](#).

DaVIDen iraupena mugagabea da, urtero ematen baita, ezarritako baldintzak betetzen jarraitzen den neurrian.

Etxebizitzarako eskubide subjektiboaren kontrola

Alokairua aldeztatik ordainduta egotea eskatuko da, eta banku-ziurtagirien bitartez akreditatu behar da. DaVid programaren ordainketa hileroko egitea aurreikusi da, eta EmanZiparena hiruhileroko urtarrean, apirilean, uztailean eta urrian.

DaVid edo EmanZipa laguntza bakarra emango da etxebizitza bakoitzeko. Bi programa hauek ez dira bateragarriak etxebizitza babestua alokatzeko dirulaguntzekin edota errentamendua ordaintzeko aparteko edo larrialdiko laguntzekin.

Nola eskatu EmanZipa

1. Eskara telematikoki egin behar da, eta horretarako beharrezkoa da ziurtagiri digitala izatea edo IFZ+PIN identifikazio sistema erabiltzea.

Eskara webgune honetan egin behar da: www.vivienda.navarra.es.

2. EMANZIPA eskatzeko PINa lortzea.

Erraz eta doan egin daiteke [esteka honen bitartez](#), eta Nafarroako Zerga Ogasunak etxera bidaliko du.

3. Ekarri beharrezko dokumentazioa.

Ez da dokumentaziorik ekarri behar. Hala ere, gomendagarria da alokatzeko kontratua eskura izatea,

horko datu batzuk adierazteko, bereziki honako hauek (baita datu pertsonalak, ekonomikoak eta familiari buruzkoak ere, kasuen arabera): alokatutako etxebizitzaren helbidea eta logela kopurua, errentatzailearen IFZa eta izena, kontratuaren hasierako data, ordaindutako hileko errenta eta errentariaren eta errentatzailearen banku-kontuaren zenbakia.

4. Zer egin eskaera aurkeztu ondoren.

Eskaera tramitatu eta onartu arte itxaron behar da, horri buruzko jakinarazpena posta elektronikoaren bitartez bidaliko baita.

Eskaera onartu ondoren, ordainketen banku-ziurtagiriak modu aurkeztu beharko dira. Nahitaezkoa da banku-ziurtagirietan eskaeraren titularrari dagokion errentaren ordainketa islatzea.

Laguntza eskatzeko emaila: emanzipa@navarra.es

Nola eskatu DaVid laguntza

Laguntza eskatzeko emaila: davidvivienda@navarra.es

NASUVINSArene bulegoetan tramitatzen da (San Jorge Etorbidea 8, Iruñea), eta alde aurreko hitzordua eskatu behar da 948 012012 telefonoan. Tuteraren kasuan, alde aurreko hitzordua 848 420342 telefonoan eskatu behar da.

EmanZiparen kasuan bezalaxe, ez da dokumentaziorik eraman behar, baina gomendagarria da alokatzeko kontratua eskura izatea EmanZiparako ere behar diren datuak bete ahal izateko.